



# NAFARROAKO PARLAMENTUKO

## ALDIZKARI OFIZIALA

X. legegintzaldia

Iruña, 2022ko azaroaren 18a

133. ZK.

### A U R K I B I D E A

#### E SAILA:

##### **Interpelazioak, mozioak eta adierazpen politikoak:**

- 10-22/MOC-00105. Mozioa. Horren bidez, Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da egin beharreko zuzemenak egin ditzan estatuko Gobernuaren aitzonean, Nafarroak aukera izan dezan Europar Batasuneko ECOFIN-Ekonomia eta Finantza Gaietako Kontseiluan zuzenean parte hartzeko. Mikel Asiain Torres jaunak aurkeztu du (3. or.).
- 10-22/DEC-00049. Adierazpen instituzionala, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak bat egiten baitu Diabetesaren Mundu Egunaren inguruko ospakizunarekin. Eledunen Batzarrak onetsia (4. or.).
- 10-22/DEC-00050. Adierazpen instituzionala, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak bat egiten baitu Hartzaroren Mundu Egunaren inguruko ospakizunarekin. Eledunen Batzarrak onetsia (4. or.).

#### F SAILA:

##### **Galderak:**

- 10-22/PES-00338. Galdera, Nafarroako pobrezia eta gizarte-desberdinkeria buruzko VI. Txostenean jasotako “hala ere, datuek adierazten dute Nafarroan izandako ondorioak ez direla Estatu osokoak bezain larriak” baieztapenari buruzkoa. Jorge Esparza Garrido jaunak egin du (5. or.).
- 10-22/PES-00339. Galdera, Nafarroako pobrezia eta gizarte-desberdinkeria buruzko VI. Txostenaren 9. taulari (“Mugikortasuna Nafarroan diru-sarreraren dezilen arabera, 2019 eta 2020 bitarte”) buruzkoa. Jorge Esparza Garrido jaunak egin du (6. or.).
- 10-22/PES-00340. Galdera, Nafarroako pobrezia eta gizarte-desberdinkeria buruzko VI. Txostenaren 31. taulari (“Pobrezia larriaren mugak etxe-tipologien arabera, familia-unitateek EBan jasotako kopuruez bezainbatean, 2020an”) buruzkoa. Jorge Esparza Garrido jaunak egin du (6. or.).
- 10-22/PES-00341. Galdera, futbolaren alorreko indarkeria prebenitzeari dagokionez Herriarrekiko Harremanetako Departamentuak egindako ekintzei buruzkoa. Iñaki Iriarte López jaunak egin du (7. or.).
- 10-22/PES-00342. Galdera, Izagaondoan dagoen Legingo gazteluaren eremu arkeologikoari buruzkoa. Maiorga Ramírez Erro jaunak egin du (8. or.).

- 10-22/PES-00343. Galdera, Magnesitas Navarrak Artesiagan (Erdiz) eginen duen proiektuari buruz azaroaren 20an egitekoak diren kontsulten legezketasunari buruzkoa. Isabel Olave Ballarena andreak egin du (8. or.).
- 10-22/PES-00344. Galdera, atletismoko pista estali bat eraikitzeari buruzkoa. Maiorga Ramírez Erro jaunak egin du (9. or.).
- 10-22/PES-00345. Galdera, Burlatako atletismo-pistaren ondoan eraikin berri bat eraikitzeari buruzkoa. Maiorga Ramírez Erro jaunak egin du (10. or.).
- 10-22/PES-00346. Galdera, familia gurasobakarren baimena luzatzeari buruzkoa. Patricia Perales Hurtado andreak egin du (10. or.).

**G SAILA:****Txostenak, deialdiak eta Parlamentuko informazioa:**

- Foru parlamentariak 2022ko urtarrilaren 1etik aitzina jasoko dituzten ordainsariak eguneratzea (12. or.).
- Nafarroako Parlamentuko lehendakariak 2022ko urtarrilaren 1etik aitzina jasoko dituen ordainsariak eguneratzea (13. or.).
- Nafarroako Parlamentuko behin-behineko langileek 2022ko urtarrilaren 1etik aitzina jasoko dituzten urteko ordainsari gordinak eguneratzea (13. or.).
- Foru parlamentariak bilkuretara bertaratzegatik 2022ko urtarrilaren 1etik aitzina jasoko dituzten ordainsariak eguneratzea (14. or.).
- Nafarroako Parlamentuaren zerbitzuko langile funtzionarioek eta kontratudunek beren mailaren arabera 2022ko urtarrilaren 1etik aitzina jasoko dituzten ordainsariak eguneratzea (14. or.).

**I SAILA:****Planak, komunikazioak eta programak:**

- 10-22/CDP-00012. Nafarroako Foru Komunitatearen egoerari buruzko politika orokorreko eztabaidaren ondorioz Osoko Bilkurak 2022ko azaroaren 11n onetsitako erabakiak (15. or.).

---

**E saila:**  
**INTERPELAZIOAK, MOZIOAK ETA ADIERAZPEN POLITIKOAK**

---

**10-22/MOC-00105. Mozioa. Horren bidez, Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da egin beharreko zuzemenak egin ditzan estatuko Gobernuaren aitzinean, Nafarroak aukera izan dezan Europar Batasuneko ECOFIN-Ekonomia eta Finantza Gaietako Kontseiluan zuzenean parte hartzeko.**

*MIKEL ASIAIN TORRES JAUNAK AURKEZTU DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2022ko azaroaren 14an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, hurrengo erabakia hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Mikel Asiain Torres jaunak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita egin beharreko zuzemenak egin ditzan estatuko Gobernuaren aitzinean, Nafarroak aukera izan dezan Europar Batasuneko ECOFIN-Ekonomia eta Finantza Gaietako Kontseiluan zuzenean parte hartzeko.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Osoko Bilkuran izapidetzea, eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2022ko azaroaren 14an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

**MOZIOAREN TESTUA**

Geroa Bai talde parlamentarioko foru parlamentari Mikel Asiain Torres jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatutakoaren babesean, honako mozio hau aurkezten du, Legebiltzarreko Osoko Bilkuran eztabaidatzeko.

Nafarroaren berezitasun historikoak direla eta, ezaugarri bereizgarri bat du Nafarroak; Estatuarekin duen erlazioa honako hauek baldintzatzen dutela: Foruaren Hobekuntzak, 1982an onetsiak, eta Itun Ekonomikoak, gaur egun gure erkidegoaren eta Estatuaren arteko zerga- eta finantza-harremanak arautzen dituen tresna den heinean.

Espainiako Estatuaren 1985eko ekainean batuzko Europar Batasunera. Europako Agiri Bakuna, urte bereko abenduan sartu eta –garai hartako– hamabi kideek 1987ko uztailean onetsi zutena, izan zen aldaketa handienak egin zituena EEn erregulazioaren, 1957ko Erromako Itunaz geroztik.

ECOFIN-Ekonomia eta Finantza Gaietako Kontseilua Europar Batasunaren tresna ugarietako bat da, eta, hain zuzen ere, EBk hiru esparru nagusitan gauzatzen duen politikaz arduratzen da: politika ekonomikoan, gai fiskaletan eta finantza-zerbitzuen erregelamenduan gauzatzen duen politikaz, alegia.

Nafarroak ez du zuzenean parte hartzen entitate horretan, Espainiako Estatuaren zati gisa baizik. Zeharkako parte-hartzea da beraz, eta Nafarroan, aldiz, harreman zuzena eduki nahi izan dugu beti estamentu europar guztiekin.

Hori dela eta, honako ebazpen proposamena aurkeztu dugu:

1. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du egin beharreko zuzemenak egin ditzan Estatuko Gobernuaren aitzinean, Nafarroak aukera izan dezan Europar Batasuneko ECOFIN-Ekonomia eta Finantza Gaietako Kontseiluan zuzenean parte hartzeko.

2. Nafarroako Parlamentuak Estatuko Gobernua premiatzen du onartu dezan Nafarroako Gobernuak egindako eskaera, Nafarroak Europar Batasuneko ECOFIN-Ekonomia eta Finantza Gaietako Kontseiluan zuzenean parte hartzeko aukera izan dezan aurkeztutakoa.

Iruñean, 2022ko azaroaren 9an

Foru parlamentaria: Mikel Asiain Torres

## **10-22/DEC-00049. Adierazpen instituzionala, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak bat egiten baitu Diabetesaren Mundu Egunaren inguruko ospakizunarekin.**

### *ELEDUNEN BATZARRAK ONETSIA*

Nafarroako Parlamentuko Eledunen Batzarrak, 2022ko azaroaren 14an egindako bilkuran, honako adierazpen hau onetsi zuen:

“1. Nafarroako Parlamentuak bat egiten du azaroaren 14an ospatzen den Diabetesaren Mundu Egunarekin. Nafarroako Parlamentuak ANADlrekin batera ekitaldi bat egingen du azaroaren 15ean.

2. Nafarroako Parlamentuak bere fatxada urdinez argiztatuko du azaroaren 14an.

3. Nafarroako Parlamentuak erakunde eskudunak premiatzen ditu diabetes gaixotasunari aurrea hartzeko politikak sustatzen jarrai dezaten.

4. Nafarroako Parlamentuak beharrezkotzat jotzen du gaixoen eta profesionalen diabetes arloko prestakuntza eta hezkuntza areagotzeko neurriak sustatzea.

5. Nafarroako Parlamentuak uste du beharrezkoa dela diabetesaren ikusgaitasuna sustatzea, eta aldeztu egiten ditu ANADlK Diabetesaren Mundu Eguna dela-eta antolatu dituen jarduerak”.

Iruñean, 2022ko azaroaren 14an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

## **10-22/DEC-00050. Adierazpen instituzionala, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak bat egiten baitu Haurtzaroaren Mundu Egunaren inguruko ospakizunarekin.**

### *ELEDUNEN BATZARRAK ONETSIA*

Nafarroako Parlamentuko Eledunen Batzarrak, 2022ko azaroaren 14an egindako bilkuran, honako adierazpen hau onetsi zuen:

“1. Nafarroako Parlamentuak bat egiten du azaroaren 20an ospatzen den Haurtzaroaren Mundu Egunarekin. UNICEFekin batera, ekitaldi bat egingen da Atalondoan, azaroaren 18an, 12:00etan.

2. Nafarroako Parlamentuak “Haurren Eskubideei buruzko Konbentzioaren” printzipioekiko konpromisoa erakusten du: haien interes goren, bizi-

tzarako eskubidea, bizi-iraupen eta garapenerakoa, parte hartzeko eskubidea eta diskriminatuak ez izatekoa.

3. Nafarroako Parlamentuak dagozkion ekintzak sustatuko ditu Garapen Jasangarrirako 17 Helburuak eta Parisko Ituna bete daitezen, COVID 19ren pandemiak eragindako krisialdia haurren orainean eta etorkizunean inbertitzeko aukera bihurtuz horrela”.

Iruñean, 2022ko azaroaren 14an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

---

**F saila:**  
**GALDERAK**

---

**10-22/PES-00338. Galdera, Nafarroako pobreziari eta gizarte-desberdinkeriar buruzko VI. Txostenean jasotako “hala ere, datuek adierazten dute Nafarroan izandako ondorioak ez direla Estatu osokoak bezain larriak” baieztapenari buruzkoa.**

*JORGE ESPARZA GARRIDO JAUNAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2022ko azaroaren 14an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Jorge Esparza Garrido jaunak aurkezturiko galdera, Nafarroako pobreziari eta gizarte-desberdinkeriar buruzko VI. Txostenean jasotako “hala ere, datuek adierazten dute Nafarroan izandako ondorioak ez direla Estatu osokoak bezain larriak” baieztapenari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agintutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2022ko azaroaren 14an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

**GALDERAREN TESTUA**

Nafarroako Gorteetako kide den eta Navarra Suma talde parlamentarioari atxikia dagoen Jorge Esparza Garrido jaunak, Legebiltzarraren Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, galdera hau aurkezten du, idatziz erantzun dakion:

Nafarroako pobreziari eta gizarte-desberdinkeriar buruzko VI. Txostenean, informazio hau dago jasota ondorioen hasieran: “Hala ere, datuek adierazten dute Nafarroan izandako ondorioak ez direla Estatu osokoak bezain larriak izan”.

Bildutako datuak kontuan hartuta:

Txosteneko edukian jasotako zer daturen araber egin da baieztapen hori?

Iruñean, 2022ko azaroaren 7an

Foru parlamentaria: Jorge Esparza Garrido

**10-22/PES-00339. Galdera, Nafarroako pobrezia eta gizarte-desberdinkeria buruzko VI. Txostenaren 9. taulari (“Mugikortasuna Nafarroan diru-sarreraren dezilen arabera, 2019 eta 2020 bitarte”) buruzkoa.**

*JORGE ESPARZA GARRIDO JAUNAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2022ko azaroaren 14an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

**1.** Izapidetzeko onartzea Jorge Esparza Garrido jaunak aurkezturiko galdera, Nafarroako pobrezia eta gizarte-desberdinkeria buruzko VI. Txostenaren 9. taulari (“Mugikortasuna Nafarroan diru-sarreraren dezilen arabera, 2019 eta 2020 bitarte”) buruzkoa.

**2.** Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

**3.** Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agintu-takoari jarraikiz, idatziko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2022ko azaroaren 14an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

**GALDERAREN TESTUA**

Nafarroako Gorteetako kide den eta Navarra Suma (NA+) talde parlamentarioari atxikia dagoen Jorge Esparza Garrido jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, galdera hauek aurkeztu ditu, idatziz erantzun dakizkion:

Nafarroako pobrezia eta gizarte desberdinkeria buruzko VI. txostenaren, 9. taulan, atal hau dago jasota: “Mugikortasuna Nafarroan diru-sarreraren dezilen arabera, 2019 eta 2020 bitarte”. Interpretazio eraginkor baterako:

Nola deskonposatu da dezil bakoitzean jasotako mugikortasuna, jomugako dezilaren arabera?

Iruñean, 2022ko azaroaren 7an

Foru parlamentaria: Jorge Esparza Garrido

**10-22/PES-00340. Galdera, Nafarroako pobrezia eta gizarte-desberdinkeria buruzko VI. Txostenaren 31. taulari (“Pobrezia larriaren mugak etxe-tipologien arabera, familia-unitateek EBan jasotako kopuruez bezainbatean, 2020an”) buruzkoa.**

*JORGE ESPARZA GARRIDO JAUNAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2022ko azaroaren 14an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

**1.** Izapidetzeko onartzea Jorge Esparza Garrido jaunak aurkezturiko galdera, Nafarroako pobrezia eta gizarte-desberdinkeria buruzko VI. Txostenaren 31. taulari (“Pobrezia larriaren mugak etxe-tipologien arabera, familia-unitateek

EBan jasotako kopuruez bezainbatean, 2020an”) buruzkoa.

**2.** Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

**3.** Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agintu-takoari jarraikiz, idatziko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2022ko azaroaren 14an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

**GALDERAREN TESTUA**

Nafarroako Gorteetako kide den eta Navarra Suma (NA+) talde parlamentarioari atxikia dagoen Jorge Esparza Garrido jaunak, Legebiltzarraren Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, galdera hau aurkezten du, idatziz erantzun dakion:

Nafarroako pobrezia eta gizarte desberdinkeriari buruzko VI. txostenean, 31. taulan, atal hau dago jasota: "Pobrezia larriaren mugak etxe-tipologien arabera, familia-unitateek EBan jasotako kopuruez bezainbatean, 2020an".

Taularen aurreko paragrafoetan, taula bera interpretatzen dutenetan, alegia, honako hau

adierazi da: "Bikote bat eta 14 urtetik beherako bi adingabe bizi diren etxeak eta 4 helduko, 5 eta 6 pertsona, etxe-tipologiak, aitzitik, ez ziren iritsi estatuko atalasea". Bildutako datuak kontuan hartuta:

Nola justifikatzen ahal da baieztapen hori, kontuan hartuta 14 urtetik beherako bi adingabe dituen bikote batentzako estatuko atalasea 13.350koa dela, eta EBrena, 13.371,2koa?

Iruñean, 2022ko azaroaren 7an

Foru parlamentaria: Jorge Esparza Garrido

---

**10-22/PES-00341. Galdera, futbolaren alorreko indarkeria prebenitzeari dagokionez Herritarrekiko Harremanetako Departamentuak egindako ekintzei buruzkoa.**

*IÑAKI IRIARTE LÓPEZ JAUNAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2022ko azaroaren 14an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

**1.** Izapidetzeko onartzea Iñaki Iriarte López jaunak aurkezturiko galdera, futbolaren alorreko indarkeria prebenitzeari dagokionez Herritarrekiko Harremanetako Departamentuak egindako ekintzei buruzkoa.

**2.** Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

**3.** Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agintutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2022ko azaroaren 14an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

**GALDERAREN TESTUA**

Nafarroako Gorteetako kide den eta Navarra Suma talde parlamentarioari atxikia dagoen Iñaki Iriarte López jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkezten dio Herritarrekiko Harremanetako kontseilariari, idatziz erantzun dezan:

Departamentuak egin al du ekintzarik, Bakearen eta Bizikidetasunaren Zuzendaritza Nagusiaren bidez, futbolaren alorrean indarkeria prebenitzeko? Zein?

Egin al du bilerarik "Indar gorri" taldeko kideekin? Noiz? Zein izan da emaitza?

Iruñean, 2022ko azaroaren 8an

Foru parlamentaria: Iñaki Iriarte López

## 10-22/PES-00342. Galdera, Izagaondoan dagoen Legingo gazteluaren eremu arkeologikoari buruzkoa.

*MAIORGA RAMÍREZ ERRO JAUNAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2022ko azaroaren 14an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Maiorga Ramírez Erro jaunak aurkezturiko galdera, Izagaondoan dagoen Legingo gazteluaren eremu arkeologikoari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agintu-takoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2022ko azaroaren 14an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### GALDERAREN TESTUA

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioko foru parlamentari Maiorga Ramírez Erro jaunak,

Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau egiten dio Nafarroako Gobernuari, idatziz erantzun dezan:

Joan den urteko martxoan, 25 udalek, elkartek, entitatek eta historialari espezialistak eskabide bat izenpetu zuten, Nafarroako Gobernuaren Kultura departamentuari zuzendua, Izagaondoan dagoen Legingo gazteluaren eremu arkeologikoa Kultur Intereseko Ondare (KIO) izendatu zezan.

Izagaondoko Legingo gaztelua leheneratzeari, birgaitzeari eta hari balioa emateari dagokienez, honako hau jakin nahi du parlamentu honek:

- Ba al du asmorik Izagaondoan dagoen Legingo gazteluaren eremu arkeologikoa Kultur Intereseko Ondare (KIO) izendatzeko eskariari erantzuteko?

- Erantzuna baiezkoa bada, zein dira jarduerarekuspenerak, egutegia urtez urte finkatuta?

Iruñean, 2022ko azaroaren 10ean

Foru parlamentaria: Maiorga Ramírez Erro

## 10-22/PES-00343. Galdera, Magnesitas Navarrak Artesiagan (Erdiz) eginen duen proiektuari buruz azaroaren 20an egitekoak diren kontsulten legezketasunari buruzkoa.

*ISABEL OLAVE BALLARENA ANDREAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2022ko azaroaren 14an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Isabel Olave Ballarena andreak aurkezturiko galdera, Magnesitas Navarrak Artesiagan (Erdiz) eginen duen proiektuari buruz azaroaren 20an egitekoak diren kontsulten legezketasunari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agintu-takoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2022ko azaroaren 14an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias



**GALDERAREN TESTUA**

Nafarroako Gorteetako kide den eta Navarra Suma (NA+) talde parlamentarioari atxikia dagoen Isabel Olave Ballarenak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, galdera hau aurkeztzen dio Lehendakariatzako, Berdintasuneko, Funtzio Publikoko eta Barneko kontseilariari, idatziz erantzun diezaion:

Magnesitas Navarrak Artesiagan (Erdiz) egiten duen proiektuari buruz Baztango Udalak

2022ko urriko saioan onetsitako mozioari dagokionez, eta publikoki iragarri denez datorren azaroaren 20an kontsultak egingen direla, zer jarduketa egin ditu Lehendakariatzako, Lehendakariatzako, Berdintasuneko, Funtzio Publikoko eta Barneko departamentuak, eta zer iritzi du kontseilariak azaroaren 20an egingen diren kontsulta horien legez-kotasunari buruz?

Nafarroan, 2022ko azaroaren 10ean

Foru parlamentaria: Isabel Olave Ballarena

---

**10-22/PES-00344. Galdera, atletismoko pista estali bat eraikitzeari buruzkoa.****MAIORGA RAMÍREZ ERRO JAUNAK EGIN DU**

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2022ko azaroaren 14an egindako bilkuran, Eledunen Baztarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Maiorga Ramírez Erro jaunak aurkezturiko galdera, atletismoko pista estali bat eraikitzeari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agintu-takoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2022ko azaroaren 14an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

**GALDERAREN TESTUA**

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioko foru parlamentari Maiorga Ramírez Erro jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau egiten dio Nafarroako Gobernuari, idatziz erantzun dezan:

Atletismoko pista estali bat eraikitzeari buruz, honako hau jakin nahi dut:

- Nafarroako Gobernuak jaso al du enpresa pribatuen eskaintzarik hori eraikitzeko eta ustiatzeko?

- Erantzuna baiezkoa bada, zer balorazio egiten du eskaintza edo proiektu horiei buruz?

Iruñean, 2022ko azaroaren 10ean

Foru parlamentaria: Maiorga Ramírez Erro

## 10-22/PES-00345. Galdera, Burlatako atletismo-pistaren ondoan eraikin berri bat eraikitzeari buruzkoa.

*MAIORGA RAMÍREZ ERRO JAUNAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2022ko azaroaren 14an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Maiorga Ramírez Erro jaunak aurkezturiko galdera, Burlatako atletismo-pistaren ondoan eraikin berri bat eraikitzeari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2022ko azaroaren 14an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### GALDERAREN TESTUA

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioko foru parlamentari Maiorga Ramírez Erro jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau egiten dio Nafarroako Gobernuari, idatziz erantzun dezan:

Burlatako atletismo-pistaren ondoan eraikin berri bat eraikitzeari buruz, honako hau jakin nahi dut:

- Nafarroako Gobernuak ba al du asmorik ildo horretako jarduketarik edo esku-hartzerik egiteko?

Iruñean, 2022ko azaroaren 10ean

Foru parlamentaria: Maiorga Ramírez Erro

## 10-22/PES-00346. Galdera, familia gurasobakarren baimena luzatzeari buruzkoa.

*PATRICIA PERALES HURTADO ANDREAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2022ko azaroaren 14an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Patricia Perales Hurtado andreak aurkezturiko galdera, familia gurasobakarren baimena luzatzeari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2022ko azaroaren 14an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### GALDERAREN TESTUA

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Patricia Perales Hurtado andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkez-

ten du, Lehendakartzako, Berdintasuneko, Funtzio Publikoko eta Barneko kontseilari Javier Remírez Apesteguía jaunak idatziz erantzun dezan:

Irailaren 27an, mozio bat onetsi zen, aho batez, Nafarroako Parlamentuko Lehendakartzako, Berdintasuneko, Funtzio Publikoko, eta Barneko Batzordean; horren bidez, Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du alda dezan Nafarroako administrazio publikoetako funtzionarioen opor, lizentzia eta baimenen Erregelamendua onesten duen otsailaren 9ko 11/2009 Foru Dekretuaren 16. artikulua, halako moldez non baimena beste 17 astez luzatuko baita familia gurasobakarren kasuan.

Mozio horri dagokionez, honako hau jakin nahi dugu:

- Nafarroako Gobernuak beteko al du mozio horretan jasotako eskaria? Eta, hala bada, zer epe finkatu ditu konpromiso hori betetzeko?

Iruñean, 2022ko azaroaren 10ean

Foru parlamentaria: Patricia Perales Hurtado



---

**G saila:**  
**TXOSTENAK, DEIALDIAK ETA PARLAMENTUKO INFORMAZIOA**

---

## **Foru parlamentariak 2022ko urtarrilaren 1etik aitzina jasoko dituzten ordainsariak eguneratzea.**

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2022ko azaroaren 14an eginiko bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, honako erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Kontu-hartzailletza eta Gai Ekonomikoetarako Zerbitzuko buruak, 2022ko urtarrilaren 17ko Mahaiaren erabakia aplikatuz, txosten bat eman du, foru parlamentarien 2022. urterako ordainsariak eguneratzeari buruzkoa.

Foru parlamentarien ordainsariei buruzko arauetan eta Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 15., 17. eta 37. artikuluetan xedatutakoari jarraikiz, hona ERABAKIA:

**1.** Ezartzea foru parlamentarien ordainsariak gehikuntza izanen dutela, 2022ko urtarrilaren 1etik aurrerako eraginez; hain zuzen ere, 2021eko abenduaren 31n indarrean zeudenen ehuneko 3,5koa, Estatuko legediak sektore publikoaren zerbitzuko langileentzat ezarria.

**2.** Onestea ezen lanaldi osoko araubideari atxikitako Mahaiko eta Eledunen Batzarreko kide

diren foru parlamentarien urteko ordainsari gordina 63.010,92 eurokoa izanen dela 2022. urterako.

**3.** Onestea ezen lanaldi osoko araubideari atxikitako gainerako foru parlamentarien urteko ordainsari gordina 56.008,26 eurokoa izanen dela 2022. urterako.

**4.** Onestea ezen lanaldi osoko araubideari atxiki gabeko Mahaiko eta Eledunen Batzarreko kide diren foru parlamentarien urteko ordainsari gordina 47.275,98 eurokoa izanen dela 2022. urterako.

**5.** Onestea ezen lanaldi osoko araubideari atxiki gabeko gainerako foru parlamentarien urteko ordainsari gordina 42.006,16 eurokoa izanen dela 2022. urterako.

**6.** Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean eta webgune ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2022ko azaroaren 14an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

## **Nafarroako Parlamentuko lehendakariak 2022ko urtarrilaren 1etik aitzina jasoko dituen ordainsariak eguneratzea.**

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2022ko azaroaren 14an eginiko bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, honako erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Kontu-hartzailletza eta Gai Ekonomikoetarako Zerbitzuko buruak, 2022ko urtarrilaren 17ko Mahaiaren erabakia aplikatuz, txosten bat eman du, Nafarroako Parlamentuko lehendakariaren 2022. urterako ordainsariak eguneratzeari buruz.

Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 37. artikuluan eta Nafarroako Parlamentuko

Lehendakariaren Estatutuan ezarritakoari jarraikiz, ERABAKI DA:

1. Onestea, 2022ko urtarrilaren 1etik aurrerako eraginez, lehendakariaren urteko ordainsari gordina 76.632,36 eurokoa izanen dela.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean eta webgune ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2022ko azaroaren 14an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

---

## **Nafarroako Parlamentuko behin-behineko langileek 2022ko urtarrilaren 1etik aitzina jasoko dituzten urteko ordainsari gordinak eguneratzea.**

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2022ko azaroaren 14an egindako bilkuran, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Kontu-hartzailletza eta Gai Ekonomikoetarako Zerbitzuko buruak txosten bat egin du Nafarroako Parlamentuko behin-behineko langileek 2022. urtean jasoko dituzten ordainsariak eguneratzeari buruz.

Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 37. artikuluan eta Nafarroako Parlamentuko Langileen Estatutuan ezarritakoari jarraikiz, ERABAKI DA:

1. Ezartzea ezen, 2022ko urtarrilaren 1etik aurrerako eraginez, honako hauek izanen direla Nafarroako Parlamentuko behin-behineko langileen urteko ordainsari gordinak:

Lehendakaritzako Kabineteko burua: 57.381,10. euro.

Lehendakaritzako idazkaria: 43.164,24. euro.

Mahaiko kideen idazkaria: 34.926,50. euro.

Talde parlamentarioen laguntzaileak: 34.926,50. euro.

2. Talde parlamentarioen laguntzaileei eta Mahaiko kideen idazkariari aplikatzea 2012ko abenduaren 17ko Mahaiaren Erabakiaren bidez zerbitzu-aitorpenari buruz onetsitako irizpideak.

3. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean eta webgune ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2022ko azaroaren 14an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

## Foru parlamentariak bilkuretara bertaratzeagatik 2022ko urtarrilaren 1etik aitzina jasoko dituzten ordainsariak eguneratzea.

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2022ko azaroaren 14an eginiko bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, honako erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Kontu-hartzailletza eta Gai Ekonomikoetarako Zerbitzuko buruak, 2022ko urtarrilaren 17ko Mahaiaren erabakia aplikatuz, txosten bat eman du, foru parlamentariak bilkuretara bertaratzeagatik 2022an jasoko dituzten ordainsariak eguneratzeari buruzkoa.

Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 15. eta 37. artikuluek ezarritakoarekin bat, hona ERABAKIA:

1. Ezartzea ezen, 2022ko urtarrilaren 1etik aurrerako eraginez, foru parlamentariak bilkuretara bertaratzeagatik jasoko dituzten ordainsariak gehikuntza izanen dutela; hain zuzen ere, 2021eko abenduaren 31n indarrean zeudenen ehuneko 3,5koa.

2. Onestea foru parlamentariak bilkuretara bertaratzeagatik 2022an jasoko dituzten ordainsariak. Haien modalitateak eta zenbatekoak hauek dira:

– 152,78 euroko dieta, deituak diren ekitaldi parlamentarioetara bertaratzeagatik, egoitza Iruñean edo Iruñetik 25 kilometrora bitarteko herrietan daukaten foru parlamentarietzat.

– 180,67 euroko dieta, deituak diren ekitaldi parlamentarioetara bertaratzeagatik, egoitza Iruñetik 25 kilometro baino gehiagora dauden herrietan daukaten foru parlamentarietzat.

3. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean eta webgune ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2022ko azaroaren 14an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

## Nafarroako Parlamentuaren zerbitzuko langile funtzionarioek eta kontratudunek beren mailaren arabera 2022ko urtarrilaren 1etik aitzina jasoko dituzten ordainsariak eguneratzea.

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2022ko azaroaren 14an egindako bilkuran, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Kontu-hartzailletza eta Gai Ekonomikoetarako Zerbitzuko buruak txosten bat egin du, Nafarroako Parlamentuaren zerbitzuko langile funtzionarioek eta kontratudunek 2022. urtean jasoko dituzten ordainsariak eguneratzeari buruz.

Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 37. artikuluan eta Legebiltzarreko Langileen Estatutuan ezarritakoari jarraikiz, ERABAKI DA:

1. Ezartzea Nafarroako Parlamentuaren zerbitzuko langile funtzionarioen eta kontratudunen ordainsariak gehikuntza orokorra izanen dutela; hain zuzen ere, 2021eko abenduaren 31n indarrean zeudenen ehuneko 3,5koa, Estatuko legediak sektore publikoaren zerbitzuko langileentzat ezarria.

1. Onestea maila bakoitzaren hasierako soldatak 2022. urterako. Honako hauek dituzte urteko zenbatekoak:

Maila	Urteko zenbatekoa
A	28.651,14 euro
B	24.103,24 euro
C	19.994,66 euro
D	17.413,62 euro
E	15.317,26 euro.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean eta webgune ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2022ko azaroaren 14an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

---

**I saila:**  
**PLANAK, KOMUNIKAZIOAK ETA PROGRAMAK**

---

**10-22/CDP-00012. Nafarroako Foru Komunitatearen egoerari buruzko politika orokorreko eztabaidaren ondorioz Osoko Bilkurak 2022ko azaroaren 11n onetsitako erabakiak.**

Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatua betetzeko, agintzen da Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara daitezen Nafarroako Foru Komunitatearen egoerari buruzko politika orokorreko eztabaidaren ondorioz Osoko Bilkurak 2022ko azaroaren 11n onetsitako erabakiak.

Iruñean, 2022ko azaroaren 14an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

**Nafarroako Foru Komunitatearen egoerari buruzko politika orokorreko eztabaidaren ondorioz Osoko Bilkurak 2022ko azaroaren 11n onetsitako erabakiak**

**Lehena.**

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du berehala har ditzan beharrezkoak diren baliabideak Nafarroako herritarrek arlo hauetan dituzten beharrianak betetzeko, helburu hauekin:

Premiazko Plan bat prestatzea, parte-hartzea izanzen duena, Nafarroako osasungintza publikoak dituen erronkei aurre egitea ahalbidetuko duena, gure erkidegoko Osasun Sistema Publikoaren suspertzea modu esanguratsuan indartuz, bai giza baliabideei dagokienez (behin-behinekotasuna desagerraraziz eta plantillak Nafarroako herritarren osasun beharrianetara egokituz), bai ekipamenduei dagokienez, bereziki oinarritzko osasun laguntzan, premia bereziko egoeran baita.

– Nafarroak gaur egun bizi duen egoera ekonomikoan, pobreziaren datuei buruzko premia azterketa bat egitea eta inflazioaren eta egoera sozioekonomiko berriaren eraginez pobrezia pairatzen ari diren edo pobrezia pairatzeko arriskuan dauden pertsonen profilak identifikatzea. Azterketa horrek balio behar du Errenta Berma-

tuan aldaketak egiteko, pobreziaren errealitateari eta beharrian berriei erantzute aldera.

– Orik 18 urtera bitarteko kalitatezko hezkuntza baten aldeko apustu sendoa egitea, aukera berdintasuna bermatuko duena eta modu estrukturalan helduko diena eskola segregazioari eta hezkuntza-konpentsaziorako beharrezkoak diren neurriei.

– Etxebizitza babestuari dagokionez, etxebizitza berrien eraikuntzatik haratago, alokairuzko etxebizitzaren parkea eta poltsa publikoa eta etxebizitzaren zaharberritzea sustatzen jarraitzea, bai eta merkatu pribatuko alokairuaren prezioak modu eraginkorrean mugatzeko beharra aldeztzea.

– Zainketen gaineko paktuan jasotakoa betetzeko prozesuaren plangintza egitea departamentu guztietan, non ezarritako diren epe labur eta luzean honako hauetarako beharko diren baliabide ekonomikoak eta materialak:

1. Zainketen Paktuan onartutako konpromisoak gauzatzeko.

2. Zainketen arloko profesionalen lana duintzeko eta beren lan baldintzak hobetzeko, bereziki hirugarren adinaren sektorean lan egiten duten pertsonen lan baldintzak.

3. Zerbitzu publiko berriak ezartzeko, xede izanen dutenak pertsona zaharrak eta/edo mendekotasuna dutenak beren gertueneko ingurunean mantentzea Nafarroako eskualde guztietan.

4. Zerbitzu publikoen eskaintza handitzeko eta pertsona zaharrentzat eta/edo mendekotasuna dutenentzat bestelako etxebizitza ereduak sortzeko, hala nola apartamentu babestuak, abegi etxeak, etxebizitza publikoak edo cohousing-a.

**Bigarrena.**

– Nafarroako Parlamentuak adierazten du bere nahia dela Nafarroako hurrengo Gobernua gure erkidegoan dagoen aniztasunean oinarrituta era-

tzea, eta gobernu aurrerakoia, soziala, feminista, ekologista eta europazalea izatea, pertsonak izanen dituen ekintza politikoen ardatz, Nafarroako Foru Komunitateak aurrera egin dezan mundu-mailako erronka handietan.

– Horretarako, Nafarroako Parlamentuaren iritziz, ezinbestekoa da fiskalitate-eredu progresibo eta birbanatzaile bat ezartzea, irabazi handieneko pertsonak eta enpresek ahalegin fiskal handiagoa egin dezaten, eta behar handiena dutenek laguntza gehiago jaso dezaten; gainera, gure autogobernua oinarri hartuta, baliabide publikoen nahikotasuna bermatu behar du, ongizate-sistema sendotze aldera, aukera-berdintasunerako tresna den heinean.

### **Hirugarrena.**

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du:

– Deskarbonizazioa sustatzera, energia berriztagarrien eta efizientzia energetikoaren bidez, ingurune guztietan. Eta toki entitateekin lankidetzan jardutera, energia-aurrezpenerako eta -efizientziarako neurriak abiarazteko eta energia berriztagarrien aldeko apustuan.

– Biltegitratzea eta energia alternatiboak sustatzera, hala nola hidrogenoa.

– Lehentasuna ematera ekonomia zirkularreko eredu jasangarri baterantz iragateari, zero hondakin helburua aintzat hartuta, eta urrezko lau arautan oinarrituta: murriztea, berrerabiltzea, konponetzea eta birziklatzea.

– Honako hauen aldeko apustua egitera: erai-kinen birgaitze energetikoa; hiri-berronratzea, hiri finkatua, auzoak eta herriak leheneratzeko; eta eraikuntza jasangarri berria prozesu industrializatuetan, eraikuntza-prozesuak goitik behera aldatzen laguntzeko.

– Ingurumenaren eta biodibertsitatearen babesa sendotzera, ekosistema guztiak eta horietan bizi diren espezie guztiak zaintzen direla bermatzeko, bai eta klima-aldaketaren inpaktuaren ondorioak minimizatzeke faktore gisa ere.

– Lehen sektorearekin lankidetzan jardutera, nekazaritza ekologikoa sustatzeko, eta gure tokiko ekoizleak eta animalien ongizatea babestera, oreka lortzeko bidean, jomuga elikadura-subirantotasunean jarrita.

– Landa-eremuetan digitalizazioa eta berrikuntza sustatzera, eremu horien despopulaztearen aurka borrokatzeko eta landa-eremuetan bizi-kalitate duina bermatzeko ardatz estrategiko diren heinean.

– Mugikortasun-eredu jasangarriagoa sustatzera, lehentasuna emanez garraio publikoari eta gutxien kutsatzen duten garraiobideei.

Hain zuzen ere, egunotan ari da izaten Egipton Klima Aldaketari buruzko 27. Konbentzioa (COP27), Nazio Batuen esparruan. António Guterres NBEko idazkari nagusiak eman dio hasiera ekitaldiari, eta dei egin du “planetaren sorospenezkaerari erantzutera, ekintza klimatikoko plan anbiziotsu, sinesgarri eta atzeraezin” baten bidez.

Ildo horretatik, foru-administrazioaren helburuetako bat izan da helburu hori lortzen laguntzea, digitalizazio jasangarri eta berdintasunezko bat sustatuz. Horretarako, oinarritzko hiru zutabe finkatu ditugu: konektibitatea, inklusio digitala eta azpiegitura teknologikoa; azken puntu horrek, gainera, konputazioarekin eta datuekin lotutako guztia hartzen du barnean.

Banda Zabalaren II. Planaren jarraibideekin bat, abiadura handiko konexioa jarri da Nafarroako biztanleriaren ehuneko 97rentzat, eta horrek aurrerapen nabarmena dakar Nafarroako Foru Komunitateko pertsonen, administrazioen, enpresen eta erakundeen hezkuntzaren, osasunaren, enplegagarritasunaren, enpresa-hazkunderaren eta aisialdiaren ikuspegietatik.

Halaber, eta gure lurraldeko herritar guztiak ustiari ahal izan dezaten konektibitate hori, Inklusio eta Gaikuntza Digitalaren Plana landu genuen. Aurkeztu zen unetik bertatik, digitalizazioaren alorreko prestakuntza eman die zenbait kolektibori, hala nola etorkinei, pertsona zaharrei eta landa-eremuetako emakumeei, bai eta modu batean ala bestean gaitasun digitaletan prestakuntza jasotzeko beharra zuten, eta duten, beste batzuei ere, alderdi oinarritzkoenetatik hasi eta gai aurreratua-goetara arte.

Orobat, azpiegitura teknologikoak, fisikoak zein birtualak, garapenezkoak edo bilakaerazkoak, modu erabakigarrian nabarmendu dira, herritarrei zerbitzu emate aldera. Hori guztia jasangarritasunean arreta berezia jarrita, eta ingurumenarekiko errespetuzkoak diren formulak gauzatu. Azpiegitura fisikoari dagokionez, kalkulatu da munduko energia ekoizpenaren ehuneko 1 behar dutela mundu osoko prozesu-zentroek IT zerbitzuak emateko. Nafarroa ere horren parte da, eta ulertzen dugu ekarpenak egiten ahal ditugula, onartuz gure kontsumo elektrikoa murrizten ahal dela, eta gure efizientzia hobetzen ahal dela, eredugarri izan nahi baitugu gure komunitateko enpresentzat eta beste administrazio batzuentzat.



Horregatik guztiagatik, orobat, Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du honakoetara:

– Banda Zabalaren Planean xedatutakoa burutzera, eta Nafarroak biztanleriaren ehuneko 100ek banda zabala izatea lortzera, legegintzaldiaren hasieran ezarritako epeak aurreratuz, eta herritarrei beharrezko konektibitatea eskainiz gure lurraldeko edozein lekutan bizi direla ere; horrela, enplegua, osasuna, hezkuntza, aisialdia eta beste hainbat gauza lortzeko aukera-berdintasuna bermatuko zaie.

– Inklusio eta Gaikuntza Planean xedatutakoarekin jarraituz, beharra duten herritar guztiak barnean hartuz, horren ezagutza eta hedapena sustatuz, Nafarroako Gobernu departamentuekin elkarlanean, gertatzen ahal diren kasu guztiak hautemateko, eta, horrela, irtenbide bat eman ahal izateko.

– 2030erako Nafarroako Estrategia Digitalean sartutako datuetan oinarritutako bilakaera teknologikoarekin jarraituz, “datuetan oinarritutako erabaki” ahalik eta gehien hartzen ahaleginduz eta adimen artifizialaren parametrizazioa eta erabilera ustiatzea sustatuz, gure erkidegoan forma emanaz Nafarroako Gobernu osoaren lankidetzari, Datuaren Bulegoaren eta Adimen Artifizialaren arloko Ikerketarako Nazioarteko Zentroaren inguruan.

Nafarroako Gobernuaren IKT azpiegitura guztiaren “green” erabilera egitera, ingurumenarentzat onuragarria den ardatz bat eraikiz, azpiegitura teknologiko berdea erabiliz, errespetuzkoa, energetikoki efizientea, eta Europak eta NBEk arlo horretan ezarritako berme guztiak beteko dituen, kontuan hartuta, oro har, Nafarroako Foru Komunitate osoko azpiegitura publikoak, izan Gobernuarenak, toki entitateenak, enpresa publikoenak, ikerketa-zentroenak edo unibertsitateenak. Energia-kontsumoa da gakoetako bat; kalkulatu da mundu osoko prozesu-zentroek munduko energia ekoizpenaren ehuneko 1 behar dutela IT zerbitzuak emateko. Nafarroa ere horren parte da, eta ulertzen dugu ekarpenak egiten ahal ditugula, onartuz gure kontsumo elektrikoa murrizten ahal dela, eta gure efizientzia hobetzen ahal dela, eredugarri izan nahi baitugu gure komunitateko enpresentzat eta beste administrazio batzuentzat.

– Nafarroako Gobernuaren eraikin publikoen biki digitalak sortzera, eta toki entitateetara ere hedatzea, gune horien energia-efizientzia nabarmen hobetzeko. Biki digital bat datuen eredu digital bat da; horri esker, prozesuak simulatzen ahal dira horiek benetan ezarri beharrik gabe, eta hori

oso lagungarria da plangintzak eta kudeaketa ingurune birtualetako simulazioetan oinarritzeko. Biki digitala eskalagarria izaten ahal denez, eta SIE kudeaketa-plataforma izanez, zehazten ahal da zer lekutan den premia-koagoa energia berriztagarriak ezartzea, edo isolamenduak sortzea eta abar. Gaur-gaurkoz, Nafarroak dagoeneko baditu biki digitala garatzeko gunea eta unitate teknikoak: Berrikuntza Digitaleko Poloa, Energiako Zuzendaritza Nagusiaren eskutik. Hortaz, hortik optimizatu beharko da eraikin publikoen kudeaketa energetikoa.

### **Laugarrena.**

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du:

– Oinarrizko Osasun Laguntzarako hasitako estrategiak eta planak garatzera eta osatzera, eta izaten ari diren inpaktua ebaluatu eta horiek sakontzeko edo aldatzeko beharra dagoen aztertzea.

– Neurri apartekoak eta koiunturalak hartzera, itzarote-zerrendak premiaz arintzera bideratuak, COVID-19aren pandemiaren ostean areagotu egin baitira; horretarako, epe motzeko eta ertaineko neurriak jasoko dituen plan bat behar da, klinikoki garrantzitsuagoak diren patologiei eta zirkuituei lehentasuna emate aldera.

– Osasuneko foru lege berri bat sortzeko lanak hastera, lege hori 2024. urtearen hasiera aldera argitaratu ahal izateko, eta, unibertsaltasunaren printzipio orokorrez harago, osasun-laguntzarako sarbide ekitatiboa bermatzeko, Oinarrizko Osasun Laguntzan sakontzeko, komunitatearen ikuspegitik, eta osasuna politika guztietara eramateko, osasunaren baldintzatzaile sozialetan arreta berezia jarrita. Lege horrek irtenbideak eman beharko ditu honako xede hauetarako:

1. Ikuspegi propio bat Nafarroako Gobernuaren Funtzio Publiko politikaren baitan Osasunbidean, XXI. mendeko osasunaren alorreko erronkei hobeki erantzute aldera.

2. Funtzionarioak berregituratzea edo egokitzea estatutupeko izateko, edo hitzarmena Estatuarekin.

3. Osasuneko eremu bakar bat sortzea, eta espezialitateetako lana hobeki antolatzea.

4. Osasunaren alorreko lankidetzak publiko-pribatuan irizpideak eta mugak finkatzea.

5. Osasuna politika guztietan, komunitate-ikuspegiz, eta ingurumen-osasuna ere barnean hartzea.

6. Osasun-arretako eredu berri bat, giza baliabideen eta baliabide ekonomikoen birbanaketa ahalbidetuko duena, eta oinarrizko osasun laguntza ardatz izanen duena, hura autonomoago eginez eta ahaldunduz.

7. Osasun-arreta modernizatzea digitalizazioaren bidez, baina pertsona ardatz duen arreta neurri handiagoan gizatiartuz.

8. Langileriaren alorrean, plantillak egonkortu behar dira, lanpostuak fidelizatu, lanaldiak malgutu, norbanakoaren osasun txartelak birbanatu eta estaldura zaileko lanpostuak aitortu.

9. Osasun-alorreko profesional guztien ibilbide profesionalak garatzea eta aitortzea.

– Osasun mentalari dagokionez, arreta behar duten pertsonei laguntza eta konpainia ematen zaiela bermatzea, pertsonengan eragin txikitzailea izaten ari diren baldintzatzaile sozialei aurre eginez eta patologia horiek garatzea ekiditen duten elementu babesgarriak sustatuz.

– Osasun publikoa sendotzera, aurreikusteko modukoa baita klima-aldaketaren eraginez osasun-arazo eta -larrialdi berriak, epidemia ezezagunak eta abar sortuko direla.

– Eremu sozio-sanitarioa garatu eta hobetu dezan, adineko pertsonentzako, mendekotasun-egoeran daudenenentzako edo desgaitasuna dutenenentzako etxez etxeko laguntza indartuz, bai eta etxez etxeko telelaguntzako gailuak garatu eta hobetu ditzan ere, zerbitzu horren onuradunen zaintza areagotzeko, eta zahartze aktiborako politikak sustatu ditzan.

### **Bosgarrena.**

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernuaren premiatzen du:

– Landa-eremua eta hiriak elkarrekiko lotura hori ez duten bi esparru edo mundu bereizitatu dituen dikotomia hori apur dezan eta hirikoaren eta landa-eremukoaren artean dagoen arrakala hori itxi dezan.

– Erronka Demografikoaren Legearen onespena bultzatzea.

– Neurriak bultzatzen jarrai dezan, landa-eskolarik gizarte-koheziarako egituratze-elementu gisa garatzea eta sustatzea errazte aldera. Horretarako, lan egin behar dugu hezkuntzako zerbitzu osagarriak –eskola-jantokiaren zerbitzua; eskola-garraioa; haur hezkuntzaren hobekuntza; doakotasunaren zabalpena, hezkuntza-sistemaren digitalizazioa...– eskola horietako benetako kohezio- eta garapen-elementu bihurtu daitezen.

– Toki-esparruan berdintasuneko politika publikoak bultzatzen eta koordinatzen jarrai dezan, ezinbesteko politikak baitira landa-eremuko emakumeak ahalduntzeko eta erantzuna emateko pairatzen duten eta haien proiektu pertsonalak zailago egiten duen diskriminazio bikoitzari.

– Hiriarteko garraioa garatu dezan, osasun, hezkuntza, kultura eta abarreko zerbitzuak eskura izatea errazte aldera, arreta berezia jarrita garraio-txartel bateratuaren garapenari eta aurrerapenari, garraio publikoaren erabilera sustatzen baitu.

– Etxebizitza publikoen kopurua handitzea ahalbidetzen duten politikak garatu ditzan, etxebizitzak birgaitzearen eta alokairurako edo salmentarako etxebizitzak eraikitzearen bidez, bai eta udalerrien gune historikoak lehengoratzeko politikak ere, betiere aintzat hartuta ukitutako toki entitateak.

### **Seigarrena.**

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernuaren premiatzen du:

– Landa-eremuko emakume eta emakume nekazarientzako proposamenak eta eragin- eta jarduera-esparruak identifikatzera:

1. Esparru familiar-pribatuko eragina.

2. Antolaketa- eta gobernantza-esparruko eragina.

3. Esparru instituzionaleko eragina.

– Gizonen eta emakumeen benetako berdintasun eraginkorrerako politika eta ekintzei ematen dien bultzada sendotzera, Emakumeen Kontrako Indarkeriari Aurre Egiteko apirilaren 10eko 14/2015 Foru Legea, LGTBI+ pertsonen berdintasun sozialari buruzko ekainaren 19ko 8/2017 Foru Legea eta Emakumeen eta Gizonen arteko Berdintasunari buruzko apirilaren 4ko 17/2019 Foru Legea garatzeko konpromisoan egindako aurrekontu-areagotzearen bide beretik jarraituz.

– Sekzio arteko eta zeharkakotasunezko politikak lantzen jarraitzea, eta departamentu guztietan horiek sendotzera, berdintasun-unitateen eta departamentu arteko batzordeen eskutik.

– Toki entitateei laguntzen eta horiek koordinatzen jarraitzea, berdintasun-politika publikoak garatze aldera, bereziki bultzatuz emakumeen eta gizonen arteko berdintasunaren alorrean Nafarroako Foru Komunitateko administrazioak eta Nafarroako toki entitateak koordinatzeko batzordea sortzeko foru-dekretuaren lanketa. 17/2019 Foru Legean aipatzen da batzorde hori, erkidegoko eta tokiko administrazioek emakumeen eta gizonen

arteko berdintasunaren alorrean gauzatzen dituzten politikak eta programak koordinatzeaz ardurtuko den organo gisa. Foru dekretu proiektu horren xedea da, orobat, koordinaziorako batorde horren funtzioak, osaera eta funtzionamendu-araubidea xedatzea.

– Emakumeen ahaldunderako eta parte-hartze sozial eta politikorako programak bermatzen jarraitzea, Nafarroako gizarteari zuzendutako ezagutarazte- eta sentsibilizazio-jarduerak gauzatzuz jendartea ohartarazteko parte-hartze hori oso garrantzitsua dela benetako berdintasuna lortuko badugu, eta, halaber, emakumeen presentzia eta parte-hartzea sustatzera Nafarroako Foru Komunitateko erakunde politikoetan eta sindikaletan eta Nafarroako elkarten sarean.

– Tokiko entitateei laguntza eta aholkularitza ematera Kontziliaziorako Tokiko Itunen programatik Zaintzen aldeko Toki Itunera iragan daitezen behar besteko finantzaketaz, eta laguntza eta

aholkularitza ematera Zaintzen aldeko Toki Itunera atxiki nahi duten entitate eta organismo guztiei.

### **Zazpigarrena.**

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernuari premiatzen du:

– Ahalik eta lasterren eta erabakitasunez bultzatzea berriz aztertu daitezela –oraindik ere ez baita egin– Nafarroako erakundeek erregimen frankistari emandako babes edo laguntzaren ondorioz onura ekonomiko handiak –edo bestelakoak– lortu zituzten agintari eta pertsona guztiei egindako omenaldi, aintzatespen eta kondekora-zio oro.

– Behar diren mugimendu politiko guztiak egin ditzan Erorien Omenezko Monumentua –Estatuko bigarren monumentu frankistarik handiena– Memoria Demokratikoaren Legean berariaz jasota datorren inbentarioan sartu eta monumentu babestuaren katalogazioa galtzeko.

